


IRUDI ETA NORTASUN BISUAL KORPORATIBO BERRIA ULMARENTZAT

2020. urtean zehar eta 2021eko lehen hilabeteetan, Taldeko Komunikazio Batzordeak irudi eta nortasun bisual korporatiboa berrikusteko proiektua landu eta koordinatu zuen. ULMA Taldeko organo korporatiboek onartu berri dute proiektua. Berrikuspen proiektu garrantzitsua da, eta ULMAren gako grafiko eta bisual guztiak egokitu, antolatu eta definitu ditu datorren hamarkadari begira.

Proiektua testuinguruan jartzeko, garrantzitsua da aipatzea ULMA Taldearen Komunikazio, irudi eta nortasun politika POGUn definituta dagoela, eta Taldearen kanpoko eta barneko komunikazioaren kudeaketan eta koordinazioan eta ULMA markaren erabileran eta babesean zehazten dela. Hain zuzen ere, markaren gai horretan dago gure Irudi eta nortasun bisual korporatiboaren pisurik handiena. Azken helburua Taldearen irudi eta nortasun korporatibo sendoa, berezgarria eta denboran iraunkorra eraikitzea da.



Fotomuntaketak diseinu prototipoetatik sortu dira

Irudi eta nortasun bisual korporatiboaren eskuliburua

Definitu eta onartu den araudia ULMA Taldearen nortasun bisual korporatiboaren eskuliburu berrian zehaztuko da. Eskuliburu horretan, gure irudiari eta nortasunari lotuta dauden eta nahitaez bete beharko diren alderdi guztiak jasoko dira. Hortik aurrera garatuko dira euskarri, mezu eta eduki korporatiboak, markaren irudia indartu eta gure Negozioak dagozkien merkatuetan behar bezala kokatzen lagunduko dutenak.

HELBURUAK

1

Gure nortasun korporatiboa sendotzea eta sustatzea, horren gainean bermatzeko gure enpresa kultura kooperatiboa, Talde gisa, irudi eta nortasun bisual digitalago baten bidez eta XXI. mendera egokituta.

2

Gure balioak koherentziaz komunikatzea eta proiektatzea ULMA Marka behar bezala erabiliz eta aplikatuz.

3

Gure mezu eta komunikazio guztietan, ULMA Talde indartsuaren proiektua behin eta berriz helarazi eta zabaltzea, **markaren babes indartsu** baten bidez.

“

Talde gisa, gure Irudi eta Nortasun osoaren oinarriak eta erreferentzia grafikoak eta bisualak ezarri nahi ditugu datorren hamarkadari begira

CARLOS SARABIA

ULMAko Marka eta Komunikazio Arloko arduraduna eta Taldeko Komunikazio Batzordeko koordinatzailea.